



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure enpresaren bezero segmentua, desgaitasunen bat, elbarritasun motaren bat edo ez elbarritasun ezta desgaitasunik dituzten pertsonetan oinarritzen da. Hau da, edozeinek izango du surfaz gozatzeko aukera. Edozein elbarritasun motari aurre egiteko gai garela uste dugu, horretaz gain, desgaitasunen inguruan ere, edozein desgaitasun duela ere gure eskolan, surfaz gozaten lagundu diezaiekegu pertsona hauei. Elbarritasun zein desgaitasun mota asko daude eta horregatik gure bezeroekiko tratua hasieratik bukaeraraino gertutasunean oinarritutako bat izango da. Guztiz pertsonalizatua izango da, bakoitzak izan ditzakeen beharren arabera gure klaseak zein oholak prestatuak izango direlako.

